

Aurrekariak

Lehenengoa.- Pasaia udalak indarrean du dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantza orokorra, Pasaia Udalak eta bere erakunde autonomoek emandako dirulaguntzak emateko irizpideak eta prozedura arautu eta finkatzeko (2024ko urriaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 195. zenbakian, argitaratua).

Bigarrena.- Aipatutako ordenantzaren 1 eranskinean daude araututa EUSKARA saileko oinarri espezifikoak.

Hirugarrena.- 2023-2025 urteetarako dirulaguntzen plan estrategikoak 2024 urterako dirulaguntzak jasotzen ditu 3. atalean.

Laugarrena.- 10 481 01 335 00 partidari 15000 euroko zenbatekoko aurrekontu-kreditua dago, - Enpresek euskara planak diseinatzeko eta haien jarraipena egiteko dirulaguntzak - Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak - Euskarazko irudi korporatiboei, webguneei eta programa informatikoei dirulaguntzak emateko.

Bosgarrena.- EUSKARA saileko teknikariak 2024rako bigarren deialdiaren proposamena egin du, aipatutako ordenantzaren I. tituluko II. kapituluaren ezaugarrien arabera.

Zuzenbideko oinarriak

Honako xedapen hauek aplikatuko dira:

Lehenengoa.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, I. tituluko II. kapituluaren norgehiagoka-erregimenean emateko prozedura arautzen duena.

Lege horren 23. artikuluen arabera, dirulaguntzak emateko prozedura ofizioz hasten da beti, organo eskudunak onartutako deialdiaren bidez.

Bigarrena.- Dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantza orokorra, I. tituluko II. kapituluaren norgehiagoka-araubidean emateko prozedura arautzen duena.

Hirugarrena.- 2023-2025 ekitaldietarako Pasaia Udalen, Pasaia Musikal Fundazio Publikoaren eta Pasaia Udalen Euskaltegiaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, 2023ko martxoaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (57. zk.) argitaratua.

EUSKARA saileko teknikari arduradunak 2024ko azaroaren 26an emandako ebazpen-proposamen-txostenean oinarrituta,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Eranskinean agertzen den enpresek euskara planak diseinatzeko eta haien jarraipena egiteko dirulaguntzen, errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzen eta euskarazko irudi korporatiboei, webguneei eta programa informatikoei bideratutako dirulaguntzen 2024ko

deialdia onartzea.

Bigarrena.- Deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidez argitaratzeko agintzea.

Pasaian, sinadura elektronikoaren datan

Teo Alberro Bilbao

Alkatea

DEIALDIA

1.- Oinarri arautzaileak

Dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak honako hauetan daude jasota:
Pasaiaiko Udalaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzen ordenantza orokorra eta eranskin hau: I.eranskineko (Euskara) 4., 5. eta 7.atalak.
Ordenantza hau Udalbatzak onartu zuen 2024ko irailaren 24an eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2024ko urriaren 9an.
Dirulaguntza horiek Pasaiaiko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude.

2. Aurrekontu kredituak

Dirulaguntza eta deitutako dirulaguntzen gehienezko zenbateko osoa honako aurrekontu-kredituei egotziko zaizkie:

10 481 01 335 00 - 15000 €

3. Dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua; diruz lagundutako jarduera egiteko epea eta ordaintzeko modua.

- Enpresek euskara planak diseinatzeko eta haien jarraipena egiteko dirulaguntzak: I.eranskineko 5.atala.
- Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: I.eranskineko 4.atala.
- Euskarazko irudi korporatiboei, webguneei eta programa informatikoei dirulaguntzak: I.eranskineko 7.atala.

4. Dirulaguntza emateko prozedura

Dirulaguntzak emateko ohiko prozedura norgehiagoka-erregimenean izapidetuko da. Prozedura honetan, aurkeztutako eskabideak alderatu behar dira, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, ordenantza espezifikoa aldez aurretik finkatutako balorazio-irizpideen arabera, eta irizpide horiek aplikatuz balorazio handiena lortu dutenak esleitu behar dira, kreditu erabilgarriaren barruan deialdian ezarritako mugarekin.

Hala ere, ez da beharrezkoa izango lehentasun-hurrenkera bat finkatzea, baldin eta deialdian esleitutako kreditua nahikoa bada ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiei erantzuteko, aurkezteko epea amaitu ondoren.

Ezin izango da deialdian zehazten den kopurutik gorako dirulaguntzarik eman, ezta aurreikusitako aurrekontu-egozpenaren urteko mugak gainditu ere. Aurrekontua nahikoa ez delako erantzuten ez diren eskabideak ezetsi egingo dira; hala ere, horien baremazioa ebazpenaren testuan zehaztuko

da, ordenantza honetako 20.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako. Deialdian ezarri ahal izango da kreditu ezagatik behin betiko ukatutako eskabideek lehentasuna izango dutela egiten den hurrengo deialdian.

Laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituztenek eskatutako zenbatekoen batura deialdiaren xedea baino handiagoa bada, zenbateko hori onuradunen artean hainbanatuko dela onartutako proiektuen edo programen aurrekontu doituen proportzioan, betiere dirulaguntzaren baldintzak, helburua eta xedea aldatzen ez badira.

Hala ere, onuradun edo proiektu bakoitzak jaso beharreko banakako zenbatekoa ez bada nahikoa laguntzen eraginkortasunerako, ez da hainbanaketa aplikatuko.

5. Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua.

Pasaia Udalaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzen ordenantza orokorraren honako eranskin honetan ezartzen dira: I. eranskineko (Euskara) 4., 5. eta 7. atalak.

6. Dirulaguntzak izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna.

Espedientea bideratzeko organo eskuduna hau da: EUSKARA SAILA. Dirulaguntza bideratzeko zerbitzuak dirulaguntza emateko proposamena prestatuko du eta batzorde bati bideratuko zaio, hark irizpena eman dezan.

Ebazpena emateko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra da.

7. Balorazio-batzordearen osaketa

Balorazio-batzordea honako hauek osatuko dute:

- Euskara-teknikaria, emakumezkoa.
- Hizkuntza normalizatzailea, emakumezkoa.
- Hizkuntza normalizatzailea, gizonezkoa.

8. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

Eskaerak Pasaia Udaleko Erregistro Elektronikokoan aurkeztu beharko dira, onuraduna pertsona fisikoa denean izan ezik. Kasu horretan, Herriarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) ere aurkeztu ahal izango da. Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 16. artikuluan zehaztutako gainerako bideetatik ere aurkeztu ahal izango dira.

2022ko azaroaren 25ean GAO-n argitaratutako Pasaia Udalaren Administrazio Elektronikoko buruzko Ordenantzaren ezarritakoa errespetatu beharko da. Zehazki, arau horretako 2., 4., 5., 6., 8. eta 18. artikuluetan xedatutakoa.

Eskaera dirulaguntza normalizatuaren eskabidea erabiliz egingo da (inprimakia egoitza elektronikokoan, HAZ-en eta dagokion sailean eskuragarri, inprimaki kodea:

- Enpresek euskara planak diseinatzeko eta haien jarraipena egiteko: E066
- Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: E036
- Euskarazko irudi korporatiboak, webguneak eta programa informatikoei dirulaguntzak: E086

Eskaerak aurkezteko epea honakoa izango da kasu bakoitzean:

- Enpresek euskara planak diseinatzeko eta haien jarraipena egiteko: 2025eko martxoaren 15a baino lehen, 2024ko Euskara Sailaren dirulaguntzen 2. deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.
- Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: 30 egun naturalekoa izango da, 2024ko

Euskara Sailaren dirulaguntzen 2. deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

- Euskarazko irudi korporatiboei, webguneei eta programa informatikoei dirulaguntzak: 30 egun naturalekoa izango da, 2024ko Euskara Sailaren dirulaguntzen 2. deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

9. Ebazteko eta jakinarazteko epea

Ebazteko eta jakinarazteko epea 6 hilabetekoa izango da, dagokion deialdia argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Ebazpenak arrazoitua izan beharko du, deialdian xedatutakoaren arabera, eskabideak baloratzeko irizpideak aipatuz, eta pertsona edo erakunde onuradunak eta laguntzaren zenbatekoa zehaztuz. Ebazpenak dirulaguntzak ematea, ezestea eta ez ematea erabakiko du, atzera egiteagatik, eskubideari uko egiteagatik edo gerora sortutako ezintasun materialagatik.

Dirulaguntza emateko ebazpenean jasoko da zein pertsona edo eskatzaileri eman zaion dirulaguntza eta zeini ezetsi zaion; eta horrez gain, pertsona edo erakunde onuradun izateko berariazko oinarri arautzaileetan ezarritako baldintza administratibo eta teknikoak betez, deialdian finkatutako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzeagatik baietsi ez diren eskabide guztien zerrenda ordenatua, bertan aurreikusitako balorazio-irizpideen arabera horietako bakoitzari emandako puntuazioa adierazita.

Norgehiagoka-prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ebazpena Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da, eta onuradunen publikotasuna ziurtatzen duten beste baliabide batzuk erabiliko dira, hala nola egoitza elektronikoa eta udalaren webgunea.

Ez da beharrezkoa izango onuradunaren datuak argitaratzea, baldin eta, dirulaguntzaren xedea dela-eta, pertsona fisikoen ohorea, norberaren eta familiaren intimitatea errespetatu eta babestearen aurkakoa izan badaiteke, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, bai eta irudi horren beraren aurkakoa ere, eta araudi erregulatzailean aurreikusita badago.

Gehieneko epea ebazpenik jakinarazi gabe igarotzen bada, interesatuek ulertu ahal izango dute diru laguntza emateko eskaera isiltasun administratiboz ezetsi dela.

10. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eta informazioak.

Pasaiako Udalaren eta haren organo autonomoen dirulaguntzen ordenantza orokorraren 28. artikuluan ezarritakoa.

Baita honako eranskin honetan ere:

- Enpresek euskara planak diseinatzeko eta haien jarraipena egiteko dirulaguntzak: I.eranskineko 5.atala.
- Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: I.eranskineko 4.atala.
- Euskarazko irudi korporatiboei, webguneei eta programa informatikoei dirulaguntzak: I.eranskineko 7.atala.

11. Eskaerak birformulatzea

Eskabideak birformulatu behar izanez gero, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 27. artikulua arabera egingo da.

 PASAIKO UDALA www.pasaia.eus	2024WDIR00014 EBAZPENA	IFK/CIF P2006900A Tel. 943 344034 Luz./Ext. 916 Donibane kalea, 19 20110 Pasaia EUSKARA euskara@pasaia.net T680700
---	---	--

12. Dirulaguntzaren bateragarritasuna edo bateraezintasuna

Udalak ematen dituen dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

13. Administrazio-bidearen amaiera

Dirulaguntza ebazteko egintzak amaiera ematen dio administrazio-bideari. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5/7123. eta 124. artikuluetan xedatzen denarekin bat, akordio horren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioko Tokiko Gobernu Batzarrari, hilabeteko epean, jakinarazpena argitaratzen denetik kontatzen hasita. Edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua arabera.

14. Eskaerak baloratzeko irizpideak.

Pasaia Udalaren eta haren organo autonomoen dirulaguntzen ordenantza orokorraren eranskin honetan ezarritakoa: I. eranskineko (Euskara) 4., 5. eta 7. atalak.

15. Jakinarazteko edo argitaratzeko bitartekoak

Prozedura honetatik eratorritako jakinarazpenak, prozeduraren ebazpena barne, udal egoitza elektronikoan (www.pasaia.eus) argitaratuko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1. artikuluan ezarritakoarekin bat. Halaber, emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen argitaratuko dira.

16. Finantziario publikoa adieraztea

Diruz lagundutako jardueraren dokumentazio eta propaganda idatzian edo grafikoan Udalaren finantzaketa publikoa jaso beharko da.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2024WDIR0014-deialdiaren ebazpena/deialdiaren ebazpena (PASAIAKO UDALA)